

## BEZEROEKIKO HARREMANAK

Gure enpresarentzat gure bezeroekiko harremana oso beharrezkoa da. Gaur egungo egoera kontuan hartuta gure zerbitzua bi motatakoa izango da.

- Gure zerbitzua, batez ere, presentziala izango da, hau da, lehen esan bezala, aurrez aurrekoa. Bai guretzako eta bai ikasleentzako egokiena dela iruditzen baitzaigu. Hori dela medio, eskolak gela bat utziko digu guk klaseak bertan eman ditzagun.



- Bestalde, gaur egungo pandemia dela eta, jende asko etxean konfinatuta dago eta hauek klase ordu gabe geratzea ez da bidezkoa. Arazo honi konponbidea emateko online klaseak emango ditugu, horrela etxean daudenak ere klaseak jasotzen jarrai dezakete.

- Gurasoren batek galderaren bat edukiz gero, sare sozialetatik idatz dakiguke edo bestela klase orduren batean etor daiteke eta adeitasunez kasu egingo diogu inolako arazorik gabe.

